

KANALAK

Erabiltzaileak gurekin **kontaktu**an jartzeko bide nagusia “888” telefono zenbakiaren bidez izango da. Gaur egun gizartearen gehiengoak sare sozialak erabiltzen ditugula jakinik, gure kontu propioa sortuko dugu: @Oihu izenaren bitartez aurkitu ahal izango gaituzte Facebook eta Instagramen. Jarraitzaile guztiak gure proiektuaren nondik norakoak ikusi eta uneoro argitaratzen ditugun informazioen berri izan dezaten. Horrez gain, webgunea (www.oihu.eus) eta posta elektronikoa (oihu@gmail.eus) edukiko ditugu.

Gure proiektua **lau haizetara zabaltzeko hainbat baliabide** erabiliko ditugu, izan ere, ahalik eta pertsona gehienek gure proiektuaren berri izatea nahi dugu. Beraz, oso garrantzitsua izango da iragarkia ondo diseinatzea eta, azken finean, ulergarria izatea, bakoitzari suertatzen zaion unean deia egitera bultzatzeko helburuz.

Hasteko, gure logoa duten poltsak, boligrafoak, pegatinak, oihalezkoa poltsak, etab. egingo ditugu **publizitate** moduan, zeinak Euskal Herri osoan oparituko ditugun. Hauek egitea pentsatu dugu egunerokotasunean erabilgarriak diren gauzak direlako. Folletoak, kartelak, etab. ere egingo ditugu horrez gain.



Horrela, eskoletan, kultur-etxeetan, etab. **hitzaldiak** ematea ideia paregabea iruditzen zaigu, hala nola, gure dei zerbitzuaren erabilera azaldu eta gaur eguneko emakumeen egoera nolakoa den azaltzeko. Bestalde, etxe guztietara iristeko helburuz, buzoietan publizitatea banatuko dugu, ahalik eta arreta gehien geureganatzeko asmoz.

Aurrez aipaturikoaz gain, esan beharra dago *EITB*rekin harremanetan jarri garela eta **iragarki** baten bidez Euskal telebista ikusten duten ikus-entzule guztiei iritsiko zaiela gure proiektuaren inguruko informazioa. Hau, gainera, bi hizkuntzetan aditzera emango litzateke, euskaraz eta gaztelaniaz, alegia, ikus-entzule guztiak uler dezaten eta era honetara, gure proiektuaren inguruan jende gehiagoren interesa eta jakin mina bereganatuko genuke. Hori gutxi balitz, *Goazen* telesailean edota *Barre Libre*a bezalako programetan ere aditzera emango genuke informazioa.

Urola Garaiko aldizkariko arduraduna gure betiko laguna dela jakinda, hari eskatuko diogu laguntza. Berak, bere kontaktuak erabiliz beste eskualdeetako **aldizkari**etako lagunei gure proiektua zabaltzeko eskatuko die, horretarako baliabide ezberdinez baliatuko delarik. Gure proiektuaren helburu nagusia gure dei zerbitzuaren erabileraren berri ematea denez, ez dugu uste arazorik izango duenik.

“Gara”, “Berria”, “El Diario Vasco”, etab. bezalako **egunkari**etan ere izango da gure iragarkia; hau, bi hizkuntzetan aditzera ematea ere oso garrantzitsua izango da. Askorentzat egunkariak egunerokoan irakurtzen diren beharizan bat izanik, baliabide aproposa iruditzen zaigu.

Betidanik **ahoz-ahoko**ak garrantzi handia izan du. Hori dela eta, aldizkari, telesail, sare sozial, eta abarretan ikusteak hau bultzatzen du. Horretaz ere baliatuko gara gure zerbitzua zabaltzeko.

Amaitzeko, esan baharra dago proposaturiko bide ezberdin hauek **funtsezkoak** iruditzen zaizkigula gure proiektua **ezagutzera emateko**. Izan ere, bide hauei esker propaganda hori adin eta ingurune ezberdinetako jendearengan iristeko aukera izango da, eta ez da bide bakar bat erabiliko, baizik eta bide ugari; honek, jende kantitate handiago batengan interesa sortuko duelarik.

